

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

“Armiñongo lotunean AP-1 autobidearen eta A-1 autobiarene Madril-Irun galtzadaren arteko elkargunea egokitzeko, edukiera handitzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2025eko uztailaren 29an egindako bilkuran, 474/2025 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Erantzuna ematea Armiñongo lotunean AP-1 autobidearen eta A-1 autobiarene Madril-Irun galtzadaren arteko elkargunea egokitzeko, edukiera handitzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda jendaurrean egon den aldian aurkeztutako alegazioei. Proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presazko okupazioa adieraztea. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 4ko 54/2025 Erabakiaren bidez, onespina eman zitzaion “Armiñongo lotunean AP-1 autobidearen eta A-1 autobiarene Madril-Irun galtzadaren arteko elkargunea egokitzeko, edukiera handitzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektua”ri, haren eraginpeko ondasun eta eskubideen bana-banako hasierako zerrenda zehatzari eta hura jendaurrean jartzeko nahitaezko izapideari.

Jendaurrean egon den aldian, alegazio idazki juridikoak aurkeztu dituzte desjabetze espedienteko 3/000, 8/000 eta 16/000 finken inguruan, eta Lege eta Administrazio Zerbitzuak idazki horien gaineko txostenak egin ditu, zeinak Bide Azpiegituren Zuzendaritzak onartu eta bere egin baititu Gobernu Kontseilu honek. Horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Aurreko izapidea bete ondoren, eta desjabetze administrazio honek eskatuta Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Jabetza Erregistroak jabari eta kargen ziurtagiriak eman ondoren, onespina eman behar zaio proiektu honen eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, zeina aurkeztutako alegazioen erantzuna, eraginpeko finken titulartasuna eta gaur egungo aprobetxamenduak kontuan hartuta taxutu baita.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakoa dela adierazi behar dela. Ildo horretan, AP-1 autobidearen eta A-1 autobiariko Madril-Irun galtzadaren arteko elkargunea Arabako Errepideen 2016-2027 Plan Integrarean jasotako jarduketara bat da. Plan hori martxoaren 20ko 6/2019 Foru Arauaren bidez onetsi zuten Arabako Batzar Nagusiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen II. Plan Orokorrean jasotako jarduketan “Obra nagusia” programako “Lotuneak eraikitzea edo berrantolatzea” azpiprogramaren barruan, 2022-2024 hirurtekorako lehentasuntzat jarrita.

Era berean, jarduketa hori jasota dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2017-2028 aldirako Errepideen Plan Orokorrean, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra onartzen duen maiatzaren 19ko 63/2020 Dekretuaren bidez onetsi baitzen, eta lehen-tasuna eman zitzaion 2023-2025 hiru urteko. Horrek esan nahi du presako okupazioa egin behar dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren arabera.

Presako adierazpenaren izapide honetarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, bat etorriz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 178.2 artikuluekin.

Eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 325.253,69 euro da, Desja-betze Atalak jakinarazi duenez.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, Autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.a) 8. artikuluan eta Arabako Lurralde His-torikoko Errepideen ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen dutenaren ara-bera. Eskumen horiek betetzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 2.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Erakunde honen barne eremuan, Foru Gobernu Kontseilua da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda onesteko eta haiek okupatu beha-rra adierazteko, hala xedatzen baitu Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Arau-bide Juridikoaren martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8.1.c).7 artikuluan.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kre-ditua badagoela jaso baita.

Horregatik, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. Erantzuna ematea Armiñongo lotunean AP-1 autobidearen eta A-1 autobia-ren Madril-Irun galtzadaren arteko elkargunea egokitzeko, edukiera handitzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda jen-daurrean egon den aldian aurkeztutako alegazioei, eta haiek baiestea edo ezestea, Lege eta Administrazio Zerbitzuaren txostenen arabera.

Bigarrena. Onespena ematea Armiñongo lotunean AP-1 autobidearen eta A-1 autobia-ren Madril-Irun galtzadaren arteko elkargunea egokitzeko, edukiera handitzeko eta hobetzeko erai-kuntza proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari. Zerrenda hori eranskinean jaso da.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, des-jabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Laugarrena. Adieraztea eraginpeko ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez desjabetzea izapidetzeko.

Bosgarrena. 325.253,69 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko aurrekontuko G/453501/60000510/0000 "desjabetzeak AP-1 eta A-1 lotzeko" aurrekontu aplikazioaren kontura, eraginpeko ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justuaren zenbatekoa ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako aurrekontu esleipenaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Zazpigarrena. Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta/edo aldaketak egin ahal izateko, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontua betearazteko dagokion foru arauak.

Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.”

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Armiñongo Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legeko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 30a

Bide Azpiegituren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA



Armiñongo lotunean AP-1 autobidearen eta A-1 autobidearen Madril-Irun gaitzadaren arteko elkargunea egokitzeko, edukiera handitzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektua
Proyecto de construcción de acondicionamiento, de ampliación de capacidad y mejora de la confluencia de la autopista AP-1 con la calzada Madrid-Irún en el enlace de Armiñón

I. ERANSKINA / ANEXO I
Udal Mugartea / Término Municipal: Armiñón

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²			Esp./Expte. 2025/2
		POLIGONO	LURSAILA		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA	
		DATOS CATASTRALES	PARCELA		DEFINITIVA	SUPERFICIE AFECTADA m²	SERVIDUMBRE	
Nº FINCA	TITULAR	POLIGONO	PARCELA	APROVECHAMIENTO	DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE	HORA
3	GENARO MEANA MORAZA	1	1532	Labore ureziatua / Tierra de labor regadio	2.850			18/09/2025 9:30
2	ANTONIO MEANA MORAZA ROSA MARCOS ALVAREZ	1	1531	Labore ureziatua / Tierra de labor regadio	21.963,76			18/09/2025 10:15
6	M. LUZ MARTINEZ DE MARIGORTA ARANA	1	1536	Labore ureziatua / Tierra de labor regadio	12.468			18/09/2025 11:00
7	DARIO MARTINEZ DE MARIGORTA LOPEZ DE TORRE JESUS MARTINEZ DE MARIGORTA LOPEZ DE TORRE ANTONIO MARTINEZ DE MARIGORTA LOPEZ DE TORRE EUGENIA MARTINEZ DE MARIGORTA LOPEZ DE TORRE ISABEL MARTINEZ DE MARIGORTA LOPEZ DE TORRE VISITACION MARTINEZ DE MARIGORTA LOPEZ DE TORRE MILUZ MARTINEZ DE MARIGORTA ARANA RUTH ABARZUZA MARTINEZ DE MARIGORTA M.ANGELES PEREZ MARTINEZ DE MARIGORTA M.JESUS PEREZ MARTINEZ DE MARIGORTA M.CONCEPCION PEREZ MARTINEZ DE MARIGORTA CARMEN BEGONA PEREZ MARTINEZ DE MARIGORTA M.REMEDIOS MARTINEZ DE MARIGORTA PEREZ M.SOLEDAZ SAENZ DE URTURI MARQUINEZ M.CARMEN SAENZ DE URTURI MARQUINEZ JESUS MARIA SAENZ DE URTURI MARQUINEZ PEDRO MARTINEZ DE MARIGORTA PEREZ	1	1805	Labore ureziatua / Tierra de labor regadio	5.487,67			18/09/2025 12:15
13	MIGUEL ANGEL SAMANIEGO OCIO	1	1809	Labore ureziatua / Tierra de labor regadio	60	292	Zortasuna: linea elektrikoa (3 m) / Servidumbre: Linea eléctrica (3 m)	18/09/2025 13:00
4	DIONISIO DURANA MONTOYA MARIA MILAGROS DUQUE VALLEJO	1	1533	Labore ureziatua / Tierra de labor regadio	9.014		33	18/09/2025 13:45

FINKA ZK.	TITULARRA		KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	BEHIN-BETIKOA		ERAGINDAKO AZALERA m ²		EGUNA	ORDUA
Nº FINCA	TITULAR	POLIGONOA	LURSAILA	DATOS CATASTRALES	APROVECHAMIENTO	BATERAKOA		ZORTASUNA		DÍA	HORA
		POLIGONO	PARCELA	POLIGONO		DEFINITIVA	TEMPORAL	SUPERFICIE AFECTADA m ²	SERVIDUMBRE		
1	M. ISABEL SUSAETA LOPEZ DE HEREDIA	1	1530		Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	3.861,17				19/09/2025	9:30
5	MERCEDES PEREZ DE MENDIGUREN FDEZ. DE LARREA JULIAN MARTINEZ MONTOLYA IGNACIO MARTINEZ PEREZ DE MENDIGUREN	1	1534		Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	13.599				19/09/2025	10:15
14	MERCEDES PEREZ DE MENDIGUREN FDEZ. DE LARREA JULIAN MARTINEZ MONTOLYA IGNACIO MARTINEZ PEREZ DE MENDIGUREN	1	1784		Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	10.444,63				19/09/2025	10:15
11	ADMINISTRAZIO BATZARRA/ JUNTA ADMINISTRATIVA: ESTAVILLO	1	1803		Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	574,23				19/09/2025	12:00
15	ADMINISTRAZIO BATZARRA/ JUNTA ADMINISTRATIVA: ARMIÑON	1	1756		Mendia B / Monte B	2.895				19/09/2025	12:45
18	ADMINISTRAZIO BATZARRA/ JUNTA ADMINISTRATIVA: ARMIÑON	1	1745		Mendia B / Monte B	2.285	171	Zortasuna: aireliko telefonoarena (1m) / Servidumbre: Telefónica aérea (1m) 47		19/09/2025	12:45
12	NATALIA FERNANDEZ BOVEDA	1	1802		Labore ureziatua / Tierra de labor regadio	2.508	859	Zortasuna: linea elektrikoa (3 m) / Servidumbre: Línea eléctrica (3 m) 335		19/09/2025	13:45